

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA KORSIKAKO KOLEKTIBITATEAREN ARTEKO LANKIDETZA INSTITUZIONALAREN MEMORANDUMA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK, Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Iñigo Urkullu Renteria jaunak ordezkaturata,

KORSIKAKO KOLEKTIBITATEAK, Korsikako Kontseilu Exekutiboko presidente Gilles Simeoni jaunak ordezkaturata,

AURRERANTZEAN, "Parte-hartzaileak",

Hurrengoak kontuan hartuta:

- Euskal komunitateak eta Korsikako komunitateak beren identitate kolektiboaren eta baita beren historia, kultura eta hizkuntzaren zentzu sakona partekatzen dutela, eta biek atzerrian komunitate garrantzitsua dutela,
- Europar Batasuneko erakundearen aldetik herri eta nazioak gehiago aintzat hartzeko eskaera eta asmo komuna eta partekatua dutela,
- Beraien arteko konfiantza- eta sintonia-giroaz gain, elkar ezagutzeko eta trukatzeko interes imoa, lankidetzaren bide bat ireki duen azken urteotan izandako topaketa instituzionalei esker sortutakoa,
- Adiskidetasun-harremanak estutzeko eta harremanetarako eta lankidetzarako kanal formal eta egonkor bat ezartzeko nahia,

Ondorengoak adierazten dute:

Gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-arloko erronkak eta ziurgabetasunak gero eta handiagoak diren une honetan, kultura-nortasun handia ezaugarri duten Euskal Autonomia Erkidegoak eta Korsikako Kolektibitateak etorkizunerako ikuspegia partekatzen dutela eta Europar Batasunaren integrazio politikoaren prozesuaren aurrerabidean lagundu nahi dutela.

Baterako proiektuak edo ekimenak eginez esparru jakin batzuetan lankidetzaren areagotzeko borondate komuna ikusita, beraien erakundeentzako lankidetzaren esparru bat ezarriko da. Horri esker aldebiko harremanen garapena bultzatuko da eta etorkizuneko lankidetzarako oinarri komun bat sortuko da.

Ildo horretan, bakoitzaren esperientzia eta praktika inspirazio-iturri gisa erabiltzen diren hainbat lan-esparru identifikatu dira.

GS

Ondorioz, Parte-hartzaileek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, dauden harremanak sendotu eta zabalduko dituzte, jardunbide egokiak eta esperientziak trukatuko dituzte, eta baterako proiektuak eta ekimenak garatu eta bultzatuko dituzte, guztien intereseko eremu hauetan:

- Euskararen eta korsikeraren hizkuntza-normalizaziorako politikak, bereziki, ezagutza, biziberritzea eta erabilera sustatzeko.
- Kanpoan bizi den diasporarekin edo kolektibitatearekin harremanak eta loturak izateko politikak, bereziki, interkonexioa ahalbidetzen eta errazten duten egiturak, komunikazio-kanalak, tresnak edo erregulazioak partekatuz.
- Lankidetzaren garatzea Europako gaien esparruan, eta, bereziki, gogoeta-elkarteak eta -taldeak garatzea Europako sare tematikoetan, eta Europako estatuz azpiko erakundearen eginkizuna sustatuko duten Europako politika bateratuak egiteko aukera.
- Era berean, Parte-hartzaileek interes komuneko beste eremu batzuetan lankidetzaren aukerak aztertu eta baloratuko dituzte.

Parte-hartzaileek adosten dute jarraipen-batzorde bat sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Korsikako Kolektibitateak izendatutako zerbitzuek edo agintariek gidatuko dutena. Batzorde horrek egingo ditu Memorandum honen koordinazio- eta jarraipen-lanak, eta aldizka ebaluatuko ditu garatutako ekintzak.

Dokumentu hau ez dago Nazioarteko Zuzenbidearen mende. Memorandum honek ez du Parte-hartzaileen arteko betebeharrak edo konpromiso juridikorik sortzen, eta ez du Parte-hartzaileetako bat ere konprometitzen finantza-akordioetara, ez bada finantza-akordio hauek bereizita eta idatziz onartuta daudela. Nolanahi ere, Parte-hartzaileek egin ditzaketen gastuak urteko aurrekontu arrunta izatearen baldintzapean egongo dira, indarreko legeria eta dagozkion formalitateak errespetatuz.

Memorandum hau bost urtez aplikatuko da hasieran, eta isilbidez berritu ahal izango da iraupen bereko aldiatarako, bost urteko aldia bat amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago parte-hartzailearen batek indarraldia amaitzeko asmoa adierazten badu salbu.


Gaztelaniaz, korsikeraz, euskaraz eta frantsesez bi aletan sinatua, testu guztiak benetakoak izanik, Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 13an.

Eusko Jaurlaritzaren izenean



Iñigo Urkullu Renteria
Lehendakaria

Korsikako Kontseilu Exekutiboaren izenean



Gilles Simeoni
Presidentea